



## 2020ko martxoaren 8.a - Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

### BORROKA EGINEZ MUNDUA ERALDATZEN DUGU!!

2017ko martxoaren 8an, mundu osoko miloika emakumek greba historiko bat burutu genuen, **zaintza, kontsumo eta ikasle grebak bezelako alorrak hartzean** lan esparrutik haratago zioan lehenengo emakumeon greba globala izanagatik.

Zintzoak izateko mugaz eta kulturaz gaindiko mugimendu feministak borroka hauek agenda publikoetan sartzea lortu duela onartu beharra dago. LKN mugimendu honekin busti inplikatu da, aktiboki parte hartuz, ez soilik **M8ko greba deialdiak egiten**, mobilizazio eta ekintza bateratuetan baita.

2020ko M8 honetan, **gure erakundearen printzipio antipatriarkalen, antikapitalisten, antiarrazisten eta internazionalisten itzalean**, berriro ere, LKN mugimendu feministarekin koordinatuta, kaleetara irtengo da.

- Elkarrekin **desberdintasunaren aurka borrokatzen, indarkeria matxisten aurka**
- **Sexuarengatik, nortasun zein izaera sexuala dela eta bazterketarik egin gabe, gure gorputzen gainean erabakitze eskubidearen alde borrokatzen**
- **Emakume askeak izateko borrokatzen, indarkeria patriarkala jasaten jarraitzen dugulako**
- Prekarietatean gauden pertsona gehienak emakumeak garelako borrokatzen, soldatetan ematen diren desberdintasunak pentsioetan isladatzen direlako.
- **Etxeko eta zaintza lanak ikusteaz bihurtzen** direlako eta ez direlako aitortzen
- Lesbianak, homsexualak, bisexualak, trans-ak, intersexualak, queer-ak... **diskriminatuak izaten jarraitzen dugulako borrokatzen**
- **Emakume etorkinak eta arrazializatuak genero indarkeriaren, erakundeen indarkeriaren eta indarkeria arrazistaren aurrean** babesgabezia egoera handiagoan gaudelako **borrokatzen**
- Nekazal munduko emakumeak zapaltzen gaituen espazio patriarkal batetan gaudelako **borrokatzen**
- Hezkuntzako, osasuneko, gizarte zerbitzuetako eta menpekotasun arloko murrizketak **gure** lanaren eta denboraren kontura egiten direlako **borrokatzen**

**Horregatik**, globalizatutako **kontsumo kapitalistaren** aurka borrokatzen jarraitu dezagun; hezkuntza **publiko, laiko ez sexista eta genero aurreritziatik garbi** baten alde borrokatzen jarraitu dezagun; oinarrizko baliabideak eta natura baliabideak modu publiko, kolektibo eta komunitario batetan kudeatuko dituen **ekonomia jasangarri**, bidezko eta solidario baten alde borrokatzen jarraitu dezagun.

Indarkerietatik aske, **gizartearen eta lan arloko emakumeen baldintzen benetako aldaketa** baten eta bizitza duin baten alde.

**BORROKA EGINEZ MUNDUA ERALDATZEN DUGU!  
KLASE FEMINISMORIK GABE IRAULTZARIK EZ DAGO!**



**Lanaren  
Konfederakunde  
Nagusia**

**@CGT  
www.cgt-lkn.org  
rojonyegro.info**